

STM

San Telmo Museoa

San Telmo Museoa elkarrizketara eta kulturara irekitako diziplina anitzeko ikuspegi batekin inauguratuko da



IFK-CIF A20966422
10278n 1 2010-06

Gaur inauguratuko da Donostiako San Telmo Museoa, Nieto Sobejano Arquitectos enpresak eraikin historikoa birgaitzeko eta zabalkuntza berria gauzatzeko 4 urtetan egindako prozesuaren ondoren. Gainera, museo eredua goitik behera aldatu da, eta euskal gizartea eta herritarrak ditu ardatz.



San Telmo Museoa

San Telmo Museoa, 1902an inauguratua, Euskadiko zaharrena da, eta ekarpen intelektual eta ondare aberats batekin sartu da XXI. mendean. 2007tik 2011ra bitarte egindako zabalkuntzari eta birgaitzeari esker, museoa beste helburu batzuekin zabalduko da, elkarrizketara eta eztabaidara irekitako diziplina anitzeko ikuspegi batean oinarrituta.

Etorkizuneko belaunaldietarako oroimena izateaz gain, museoak zaintzen duen ondare-aberastasun hori babesteko eta herritarrei jakitera emateko ardura hartzen du bere gain, guztiok ondare hori erabil dezagun eta horretaz balia gaitzen.

Euskal gizartearen historia eta bilakaeraren bilduma adierazgarrienak kontserbatzeko, osatzeko eta handiagotzeko erantzukizuna du San Telmo Museoa.

Museoa ez ezik, jakintza zabaltzeko eta pentsamendua sortzeko gunea ere bada San Telmo. Oraina ulertzeko eta iraganarekin eta sustraiekin topo eginez etorkizuna eraikitzeko tresna.

Etapari berri honetan, San Telmo Museoa, Donostiako Udalak bultzatuta, kultura eta ondarea garatzeko eragile bihurtzeko konpromisoa hartu du bere gain. Horretarako, Kultura Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa jaso du, eta lankidetzak akordioak egin dira KUTXA finantza-erakundearekin, Altuna y Uría eraikuntza-enpresarekin eta EiTBekin.

IFK-CJIF A20966422
10278n 1 2010-06



San Telmo Museoa

Inaugurazio ekitaldian –19:30etan–, honako ordezkari politikoak izango dira:

Ángeles Albert, Directora de Bellas Artes del Ministerio de Cultura
Mikel Cabieces, Delegado del Gobierno en Gipuzkoa
Arantza Quiroga, Presidenta del Parlamento Vasco
Blanca Urgell, Consejera de Cultura del Gobierno Vasco
Markel Olano, Diputado General de Gipuzkoa
M^a Jesús Aranburu, Diputada de Cultura de Gipuzkoa
Rafaela Romero, Presidenta de las Juntas Generales de Gipuzkoa
Odón Elorza, Alcalde de Donostia-San Sebastián
Denis Itxaso, Concejal de Cultura de Donostia-San Sebastián

eta baita artearen eta kulturaren munduko eta gizarteko pertsona ospetsu ugari -museotako zuzendari eta teknikariak, artistak, kultura, enpresa eta finantza entitateak...-.

IFK-CJF A20966422
10278n I 2010-06

SAN TELMOREN BERRIKUNTZA ZENBAKITAN

San Telmo Museoa berritzearen kostua, guztira, 28,5 milioi eurokoa izan da, jarraian agertzen den bezala banatuta:

- Eskuhartze arkitektonikoaren inbertsioa: 20,5 milioi euro
- Museografia, instalakuntzak eta ekipamendua: 8 milioi euro

Erakundeen partehartzea:


Jarraian, museoaren proiektuan parte hartu duten erakundeak eta hauen ekarpenak:

DONOSTIAKO UDALA: 13 milioi euro.

KULTUR MINISTERIOA: 9 milioi euro -8 milioi arkitektura, milioi 1 museografia-.

EUSKO JAURLARITZA: 3,5 milioi euro -arkitektura-.


GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: 3 milioi euro -museografia-.



BERRIKUNTZA ARKITEKTONIKOAREN PROIEKTUA

San Telmo Museoaren berrikuntza arkitektonikoaren proiektua Nieto Sobejano Arquitectos estudioarena da, nazioartean ospe handia duena. Bere proposamena jatorrizko eraikina leheneratzean eta erabilera berriak baldintza hoberenetan ematea ahalbidetuko duen bloke berri bat egitean datza.

XVI. mendeko komentua zaharberitu da, birgaitu egin da eta orokorrean antzinako bolumenak berreskuratu ditu. Zabalkuntza eraikina, aldiz, harrera



espazio bihurtu da, bisitak bere helburuen arabera banatzea errazten duena: museora bisita, programatutako jarduera batean parte hartzea edo kafetegira joatea -Bokadok kudeatutakoa-.

San Telmo Museoak eraikitako **11.000 koadrotik gora du**, euskal gizartearen interpretazioari eskainitako museo handiena bilakatuz.

Nieto Sobejanoren proiektuak Zuloaga plazako eraikin berriaren fatxadari garrantzia handia ematen dio, zelosia moduko metalezko fatxada, Leopoldo Ferrán eta Agustina Otero artistek burututako proiektua. Eraikin

modernoaren inpakto bisuala gutxiagotu egiten du fatxada honek eraikina biltzen duen landaredi elementuan dituen hormari esker.

Zulatutako xaflek landarediari ateratzen uzten diote, bere proposamenaren oinarrian dauden Urgull mendiko harri erosiaturak bezala.

“Gure proposamenak biltzen duen natura/artifizio harremanaren adierazpen bat gehiago bailitzan, eraikin/pantaila berria azal zulatu batez bilduta egongo da, eraikin guztia inguratuz iris daitezkeen landare igokariaren euskarri izango diren metalezko saretez osatutako azal zulatuaz, alegia. Hartara, eraikin berria Urgull mendiaren paisaiarekin nahastuko da eta eraikin historikoak nabarmenduko ditu.”



ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

San Telmo Museoa **1.000 m²-ko tokia du**, eta horri esker, **gizarte-zientziei nahiz arte-alorrari lotutako erakusketa handiak ekoizteko zentroen nazioarteko sarean sar daiteke.**

Lehen aldi baterako erakusketa, museoak apirilaren 2an atea irekitzean ikusi ahal izango dena, "6 mila milioi Beste" izango da, Yann Arthus Bertreand-en eta GoodPlanet Fundazioaren bideo erakusketa bat, Sibylle d'Orgeval eta Baptiste Rouget-Luchaire-k burutua. Bertan, gizakien izaerari buruzko gogoeta egiten da. Erakusketa jarduera programa batekin osatuko da: hitzaldiak, debateak...

JARDUERAK: GUZTION ARTEAN ETA GUZTIONTZAT

San Telmo museoa herritarrei zuzenduta dago, eta irisgarritasuna –fisikoa, soziala eta adimenekoa– faboratzen du beti. Horregatik, museoaren eta bisitarien artean esperientzia paregabea eta aparta sortzeko joera duten jarduerak egingo dira.

Batzuetan erakusketen osagarri izanik, eta besteetan programa espezifikoaren bitartez; kultura-jarduerak askotariko bisitariengana iristeko bidea izango dira eta partaidetza eta kulturaren demokratizazioa sustatuko dute.

Bisitariari eman beharreko zerbitzuaren kontzeptu berria: Museo Partekatua

San Telmo Museoan bisitariarikiko lotura desberdinak proposatzen dira, jarduera askotatik abiatuz:

-Bisitariak jasotzaile gisa. Museoan proposamen zehatz eta itxiak eskaintzen dira, eta bisitariak eskaintza horren jasotzaile gisa jokatzeko du.

-Bisitariaren eta museoaren elkarreragina. Eztabaida eta hausnarketa. Bisitaria bere ikuspegia ekartzera eta hausnartzera akuitatzen du museoak. Horrela, bisitariarekin elkarreragina izateko jomuga du, eta beraz, eskaintzen zaiona zalantzan jartzen du bisitariak, parte hartuz.

-Museo parte-hartzailea. Komunitate eta pertsona interesdunen zerbitzura dauden hainbat baliabide ditu museoak, parte har dezaten eta ekarpenak egin ditzaten: lankidetzarako proiektuak, batera zuzendutako proiektuak, edota museoari bere jarduera normalean emandako laguntza.

Bisitari berriak, dinamika berriak

San Telmo Museoaren helburua zera da, bestelako museo edo kulturazentroekin alderatuz, eskaintza berezia eta osagarria sortzea. Horretarako, jarduerak bisitariari zuzenduz, eta haren itxaropenei egokitzeaz gain, bisitari gehiago izatea faboratuko duten proposamen berriak eginez.

San Telmo aisia- eta turismo-aukera gisa

San Telmo lehen mailako kultura-aisiaren aukera gisa nabarmentzen da, eta aisialdirako proposamen erakargarriez osatutako eskaintza aldakorra izango du. Horretaz gain, hiriko eta lurraldeko turismo-eskaintzan txertatuko da. Nabarmendu beharrekoak dira familia-aisiara eta aisialdiko taldeetara zuzendutako jarduerak, belaunaldi arteko eta kultura arteko harremanak indartuz.

Irekierako jardueren egutegia:

Aste honetan zehar museo hainbat talderekin programatutako bisitak egiteko irekiko da -29, 30 eta 31n-: arkitektoak, kulturako pertsonala, museoetako teknikariak, San Telmo Museoaren Lagunen Elkartea. Apirilaren 1ean aldi baterako erakusketaren aurkezpena egingo dugu eta museo publikoarentzat apirilaren 2an irekiko da, atak zabalik jardunaldiekin. Hilean zehar, erakusketa iraunkorraren muntaia bukatutakoan, osorik zabalduko da museo.

Atek zabalik, apirilaren 2an eta 3an. Museora dohainik sartzeko aukera, espazio berriak eta aldi baterako erakusketak ezagutuz. Garrantzitsua da gogoraraztea erakusketa iraunkorra ez dagoela oraindik ikusgai.



San Telmo Museoa

Lehen bi egun hauetan egunean zehar kaleko jarduerak egongo dira eta 19:00etan musika museoan. Museoaren irekiera ordutegia 10:00etatik 20:00era bitartekoa izango da.

Apirileko beste asteburutan ere jarduerak egongo dira eta Aste Santuan haurrentzako tailerrak.

Gainera, aldi baterako erakusketarekin lotuta programatutako jarduerak ere egingo dira.

IFK-CJF A20966422
10278n 1 2010-06